Oinarri hauek bideak garbitzeko zerbitzuko peoi balioanitza bi lanpostu kontratu mugagabe bidez betetzeko hautaketa-prozedura arautzen dute, gure ordenamendu juridikoan aurreikusitako berdintasun-, merezimendu-, gaitasun- eta publizitate-printzipioak eta hautagaia lanpostuaren profilerak egokitzeko, arintasun, eraginkortasun, efizientzia eta printzipio subsidiarioak uztartuz.

Kontratazioa lan kontratu mugagabe bidez egingo da.

Badesak ezartzen duen lanaldia izango da, betiere lanpostuen izaera eta premia bereziei erantzunez.

Kod. Cod.	Izena Denominación	Ego. Situ.	Tit. Tit.	Talde Grupo	Diru-sari osagarriak Retribuciones complementarias			NS SP	Ohrak. Obsrv.	H.E. P.L.	Data Fecha	
					Lantokia- gatiko Osag. Nivel CD	Osagarri bereziak Complemento Especifico						
							Bestelak Osagar. Otros comptos.					Dedik. Dedic.
0330	KGko Peoi Balioanitza (6) (Elgoibar) Peón/a Polivalente L.V. (6) (Elgoibar)	H V	Eskola ziurtagiri + B Certificado de escolaridad + B	A.P. (E)	8/7				L C	1		
0369	KGko Peoi Balioanitza Peón/a Polivalente L.V. (Eibar)	H V	Eskola ziurtagiri + B edo C Certificado de escolaridad + B o C	A.P. (E)	7/8				L C	B gida baimena 2009ko abenduak baina lehen lortu badu, bestela C Carnet B si ha obtenido antes diciembre 2009, C en caso contrario 1	1	

Eskaintza hau iragarki bat Estatuko Aldizkari Ofizialean eta oinarriak Gipuzkoako eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, eta Badesaren web orrian (www.badesa.eus) argitaratuz emango da ezagutzera.

Horretarako prestatutako inprimaki eta eredu bidez Badesak jasotako hautaketa-prozesuko hautagaien datu pertsonalak Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko indarreko araudian ezarritakoaren arabera tratatuko dira.

Hautagaiek baimena ematen diote Badesari emandako datuak hautaketa-prozesuaren helburuetarako erabiltzeko, eta helburu horien artean daude telefono-deiak egitea eta ekarritako helbide elektronikoetara mezuak bidaltzea.

Badesako zerbitzuan langileak sartzeko prozedurak emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioarekiko duen konpromisoa adierazten da

B) Indarraldia

Lanpostu Zerrendako 0330. eta 0369. lanpostuak lan kontratu mugagabe bidez es- taliko dira.

Deialdi honetako lanpostua hutsik geratzen bada, lanpostu horretarako aukera izan- go duten izangaien zerrenda egingo da beherezko puntuazioaren ordenan, betiere ze- rrendan duten lehentasuna errespetatuta.

**C) Lanpostu hutsak eta lan poltsa**

Lanposturik betetzen ez duten hautagaien lehentasun-hurrenkerarekin osatuko da enplegu-poltsa, eta prozesu horren kategoria bereko lanpostuak betetzeko erabili ahal izango da, bitarteko izaerarekin, harik eta prozesu hori erregelamenduz bete arte. Poltsa hau Badesa, SAUn eta Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatean sor daitezkeen mota horretako lanpostu hutsetarako erabiliko da.

Ondorio horietarako, poltsa hori kategoria bereko aurreko poltsen gainetik egongo da.

2. LANPOSTUAREN FUNTZIOAK

Lanpostuaren eginkizunak oinarri hauen I. Eranskinean zehaztuta daude.

3. IZANGAIEN BETEKIZUNAK

Onartua izateko, honako baldintza hauek bete behar dira:

- Europar Batasuneko estatu kide bateko nazionalitatea edukitzea, edo Europar Batasunak egindako eta Espainiak berretsitako nazioarteko hitzarmenen bidez langileen zirkulazio askea duten estatuetakoa izatea. Aurkez daitezke, halaber, Europar Batasuneko kide den estaturen bateko nazionalitatea dutenen ezkontideak ere, baldin eta zuzenbidez banatuta ez badaude, baita haren ondorengoak eta haren ezkontide zuzenbidez banatugabearen ondorengoak ere, hogeita bat (21) urte baino gutxiago badituzte, edota, gehiago izanik ere, haien kontura bizi badira eta Espainian legezko bizilekua duten atzerritarrak.
- Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean 16 urte beteta edukitzea eta nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adina ez gainditzea.
- Eskola ziurtagiria edo baliokidea izatea. Atzerriko titulazioen kasuan, tituluaren homologazioari dagokion egiaztagiraren jabe izan beharko dute izangaiak.
- B edo C gidabaimena edukitzea.
 - B gidabaimena: 2009ko abenduak baino lehen lortu izanez gero.
 - C gidabaimena: B gidabaimena 2009ko abenduak geroztik lortu badu.
- Zereginak gauzatzeko funtzio-gaitasuna edukitzea, pertsona desgaituen eskubi-deei eta gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren Testu Bategina onesten duena, azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren aplikazioa alde batera utzi gabe
- Diziplina-espediente bidez, edozein administrazio publikoren zerbitzutik bananduta ez egotea, edota eginkizun publikoak betetzeko erabat edo bereziki gaitasunik gabe geratu ez izana. Beste Estatu bateko nazionala izanez gero, ezgaitua edo egoera baliokidean ez egotea, ezta diziplina-zehapenik edo baliokiderik ez izatea ere, dagokion Estatuan baldintza berberetan enplegu publikora iristea eragotziko duenik, hain zuzen.
- Azterketa-eskubideengatik Ordenantza Fiskalean aurreikusitako 6,10 euroko tasa ordaindu izana, deialdian parte hartzeko.
- Aurretiazko eskaera egitea

Izangaiak aurrekarian eskatutako baldintzak bete beharko dituzte eskaerak aurkezteko epea amaitzean eta egoera horri eutsi egin beharko zaio lan kontratua sinatua arte.

4. ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA ETA MODUA**4.1. Prozesuan onartzea**

Onartzeko eta, hala badagokio, hautaketa-prozesuan parte hartzeko, honako hauek bete beharko dira: 1) eskabidea atal guztietan bete, 2) epearen barruan aurkeztu eta 3) langileak hautatzeko deialdian izena emateagatikotasak ordaindu.



Onartua izateko nahikoa izango da eskabidean nork bere erantzukizunpean adieraztea eskatzen diren baldintza guztiak betetzen direla, betiere aurkezteko ezarritako epea amaitzen den egunean.

4.2. Eskabideak aurkezteko modua

Eskabideak Badesa, SAUren web orriko tramiteak-lan eskaintzaren atalean argitaratutako inprimakiaren arabera egokituko dira, 39/2015 Legearen 66.6 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta tasa ordaintzearekin formalizatu beharko dira, salbuespenak salbuespen, azterketarako eskubideagatiko tasak arautzen dituen ordenantza fiskalarekin bat etorriz (2022ko irailaren 23ko GAO, 181. zenbakia).

Aurrekoaz gain, eredu ofizial eta normalizatu bat jarriko da ere eskura; Badesa, SAUko webgunean (Lan eskaintza) egongo da eskuragarri, eskabideak aurkezteko epea irekitzen den unean.

Paperezko formularioa formulario elektronikoaren berdina izango da, eta haren edukiak eskatzen duen zehaztasunarekin bete beharko da.

Halaber, lehiaketa-fasean baloratu beharreko merezimenduak adierazi beharko dira. Eskabideak aurkezteko epea amaitu arteko erreferentziarekin baloratuko dira merezimenduak.

Oharra: Erabiltzen den formularioan ere meritua alegatu beharko dira, baina kontuan hartuta prozesu honetarako aplikazioaren autobalorazio-funtzioa desgaituta egongo dela, prozesuaren fase honetan aplikazioak 0 puntu esleituiko ditu merezimenduen balorazio-atalean.

Parte hartzeko eskabidearekin ez da aurkeztu beharko parte hartzeko baldintzak eta alegatutako merezimenduak betetzen direla egiaztatzen duen inolako agiririk. Nahikoa izango da hautagaiak, beren erantzukizunpean, adieraztea parte hartzeko eskabidea aurkezteko epea amaitzen denean prozesuan parte hartzeko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela. Eta deialdia argitaratzen den egunean alegatutako merezimenduak egiazkoak eta zehatzak direla adieraztea. Bi kasuetan, dagokion epaimahai kalifikatzaileak egiaztatzeari utzi gabe, edota hautagaiak alegatutako merezimenduak bere garaian egiaztatzea eta dagokion epaimahai kalifikatzaileak egiaztatzea, oinarrietan ezarritakoaren arabera.

Parte hartzeko baldintzen eta eskabidean alegatutako merezimenduen agiri bidezko egiaztapena, dagokion unean, Presidenteak edo dagokion Epaimahai Kalifikatzaileak berriaz eskatutako pertsonak bakarrik egin beharko dute, oinarrietan ezarritakoaren arabera.

Oinarri hauen ondorioetarako, eta hautagaiak parte hartzeko baldintzak betetzen dituela eta bertan alegatutako merezimenduak dituela parte hartzeko eskabidean adierazita, erantzukizunpeko adierazpentzat hartuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 64. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Eskaerarekin batera, langileak hautatzeko deialdian izena emateagatiko tasa ordaindu izanaren ziurtagiria baino ez da aurkeztuko.

Izangaiek adierazi beharko dute autonomia-erkidegoko zein hizkuntza ofizialetan egin nahi dituzten oposizioko ariketa.

4.3. Eskabideak aurkezteko tokia

4.3.1 Eskabideak eta eskatutako agiriak leku hauetan aurkeztu ahal izango dira:

a) *Eskaera elektronikoa egoitza elektronikoan*

https://badesa.eus/herritarrentzako-arreta-eta-tramiteak/tramites/lan-eskaintzak?set_language=eu

- Aurkezpen elektronikoa aukeratuz gero, programak onartutako identifikaziorako eta sinadura elektronikorako bitarteko bat eduki beharko da (BAKQ, ziurtagiri digitala, ziurtagiri profesionala hodeian).
- Elektronikoki aurkezten bada, sistemak ordainketa-pasabide segur batera desbideratuko dizu.



— Halere, transferentziaren agiria aurkezteko ere akera dago. Eskaera elektronikoa egiten hasi aurretik egin beharko da transferentzi hori.

b) *Aurrez aurreko eskaera*

Badesa, SAUko erregistro eta herritarrentzako arretako bulegoan (Egigurentarren kalea, 2 behea, Eibar), 9:00etatik 14:00etara.

Eskaera elektronikoki egiten EZ bada, ordain-agiria aurkeztu beharko du eskaera egiteko unean.

c) *Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan zehaztutako edozein lekutan ere aurkeztu ahal izango dira*

Erakundeko lehendakariari zuzenduko zaizkio. Antzematen diren egitate-akatsak edozein unetan zuzendu ahal izango dira, ofizioz eta/edo interesdunak eskatuta.

4.3.2. Deialdian izena emateagatiko tasak ordaintzeko modua

Tasa nominala eta banakakoa eskabideak aurkezteko epearen barruan ordainduko da, erakunde laguntzaileen bidez ordainketa elektronikoaren bidez, edo, bestela, Badesa, SAUren izenean dagoen banku-kontuan dirua sartuz, izen-abizenak adierazita.

Diru-sarrera egiteko kontu korrontearen zenbakia:

— Kutxabank: ES65 2095 5035 0010 6130 0835.

Kuota 6,10 eurokoa izango da.

Eskabideak aurkezteko epean tasa ordaintzen ez bada, hautaketa-prozesutik kanpo geratuko da.

Izangaia sarrera-egiaztagiria aurkeztu beharko du hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskaerarekin batera, edo, hala badagokio, tasa edo kuota murriztua ordaintzetik salbuesteko baldintzen justifikazioa.

Azterketa eskubideen tasa ordaintzetik salbuetsirik geldituko dira, eskaera aurkezten den egunean:

- a) Gizarte Segurantzako erregimenetako batean ere alta emanda ez egotea, edo, hala badagokio, mutualitate profesionalean, jardule gisa, edo, hala badagokio, enplegua hobetzeko egoeran, ondorio horietarako kasu hori honako egoera hauetakoren batean egotea: urtebetetik beherako iraupena duten iraupen mugatuko kontratuak, lanaldi partzialeko kontratuak eta hileko ordainsari garbia duten kontratuak, aparteko ordainsarien hainbanaketa barne, 1.200,00 eurotik beherakoa izatea.
- b) % 33ko edo hortik gorako elbarritasuna aitortuta duten pertsonak, baldin eta elbarritasun txandarako lanpostu edo plazarik erreserbatzen ez duten deialdietara aurkezten badira.

Eskaera aurkezten den egunean familia ugariko kide izaera orokorra aitortua dutenek tasaren kuota % 50 murrizteko eskubidea izango dute.

4.4. Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak behar bezala beteta aurkeztuko dira hogeita (20) egun balioduneko epean, deialdiaren laburpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Eskabidea aurkezteak esan nahi du deialdian eskatzen diren baldintzak eta eskakizunak onartzeko konpromisoa hartzen dela.

4.5. Instantzien akatsak

Eskabidea garaiz eta behar bezala ez aurkezteak izangaia baztertzea ekarriko du.

**5. IZANGIAK ONARTZEA****Betekizunak egiaztatzeko alde zureko fasea**

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, eta onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartu aurretik, ofizioz, honako baldintza/informazio hauek egiaztatu eta/edo espedienteari gehituko zaizkio, interesdunak berariaz kontrakoa adierazten ez badu:

- Nortasun-datuak egiaztatzea.
- Titulazio akademikoak (unibertsitatekoak zein unibertsitatez kanpokoak).
- Gidabaimenak (DGT).

Aurkeztu beharreko dokumentuak Badesa, SAUk badauzka, ez dira berriro aurkeztu behar izango, baldin eta eman ziren data eta bulegoa adierazten badira eta dagokien prozedura bukatu zenetik bost urte baino gehiago igaro ez badira.

Ofizioz egiaztatu ezin izan den dokumentazioa Lehendakariaren ebazpen bidez eskatuko zaie hautagaiei, eta Erakundearen web-orrian argitaratuko da. Izangaiak aurrez aurre edo elektronikoki aurkeztuko du, hautaketa-prozesuaren atal berean agertuko den «Dokumentazioa aurkeztea» estekaren bidez.

Baldintzak egiaztatu ondoren, Badesa, SAUko lehendakariak onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartuko du. Zerrenda hori Gipuzkoako eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta erakundearen webgunean argitaratuko da, eta hamar (10) egun balioduneko epea emango da erreklamazioak egiteko edo akatsak zuzentzeko.

Zerrenda horietan, hautagaien izen-abizenak, Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren zazpigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, eta, hala badagokio, ez onartzeko arrazoia jasoko dira.

Erreklamaziorik aurkeztu ezean, behin-behineko zerrendak behin betikotzat joko dira automatikoki. Erreklamaziorik izanez gero, beste ebazpen baten bidez onartu edo baztertuko dira horiek, eta behin betiko zerrenda onartuko da. Zerrenda hori, halaber, lehen aipatutako moduan argitaratuko da.

6. EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEA**6.1. Osaera**

Hautaketa prozesu honetako Epaimahaia ondorengo pertsonak osatuko dute:

- Epaimahaiko burua:
 - Debarrena Eskualdeko Mankomunitateko Ekonomista espezialitatea, kontuhartzailletza.
- Bokalak:
 - Badesako administraria
- Idazkaria:
 - Badesako administraria.

Batzordearen osaeran, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21. artikuluan jasotako ordezkapen orekatuaren printzipioa bermatuko da.

6.2. Abstentzioa eta ezespena

Batzordeko kideek ezin izango dute parte hartu, eta Badesa, SAUko presidenteari jakinarazi beharko diote 40/2015 Legeko 23. artikuluan aurreikusitako zirkunstantziak gertatzen direnean.

Era berean, hautagaiek Batzordeko kideak eta haien kanpo-aholkulariak ezetsi ahaliko dituzte 23. artikuluan horrean adierazitako zirkunstantziaren bat edo hainbat gertatzen



direla uste badute, eta 40/2015 Legearen 24. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituko zaio horretarako.

6.3. Eraketa

Epaimahaia ezin izango da eratu, ezta jardun ere, gutxienez lehendakari eta idazkaria, edo horien ordezkioak, eta gutxienez kideen erdiak, titullarrak edo ordezkioak, bertaratu gabe.

Zenbaketatik kanpo geratzen da idazkari gisa diharduena.

6.4. Jarduera

Epaimahaiko kide guztiek hitza eta botoa izango dute. Idazkariak, ordeak, hitza bai, baina botoa emateko aukera ez du izango. Epaimahaia ezin izango da eratu, eta ezin izango du jardun, presidentea eta idazkariak gain, kide titular edo ordezkioen gutxienez erdia bilkurara bertaraten ez badira.

Epaimahaiaren erabakiak bertaratu botoen gehiengoaren bitartez hartuko dira, eta, berdinaketa, izanez gero, presidentearen botoak ebatziko du.

Arau hauek aplikatzean sortzen den zalantza oro Epaimahaiak erabakiko du, baita arautu gabeko kasuetan nola jokatu ere.

Epaimahai Kalifikatzaileak hautaketa-sistema osatzen duten probak garatu eta ebaluatuko ditu. Autonomia funtzional osoz jardungo du, prozeduraren objektibotasunaren arduradun izango da eta deialdiaren oinarriak betetzen direla bermatuko du. Beraz, deialdi honetan eta bere oinarrietan ezarritako mugen barruan, Epaimahaia da egin beharreko proben edukia, aplikatu beharreko ebaluazio-irizpideak, proben emaitzak eta probak egiteari buruzko zirkunstantzia guztiak zehazteko eskumena duen organoa. Bere lanetan oposizio-lehiaketan sartutako proba guztietarako edo batzuetarako aholkulariak edo espezialistak sartzea erabaki dezake, aholkularitza eta lankidetzak teknikoak ematera mugatuz.

Prozedurako edozein unetan Epaimahaia izangairen batek deialdiko eskakizunak betetzen ez dituela jabetzen bada, baztertuta izango da, eta aldez aurretik interesdunari entzunaldirako aukera emango zaio. Horren guztiaren berri eman beharko zaio hautaketa-prozesuaren deialdia egin duen agintariari.

Epaimahaiak inola ere ezingo du aukeratu deitu diren lanpostuak baino izangai gehiago. Hala ere, hautatutakoak behin betiko kontratua sinatzeari uko egingo balio, plaza betetzen dela bermatzeko, Epaimahaiari eskatu lekiok proposamenaren ondoren agertzen diren izangaiei zerrenda osagarri bat.

Izangai batek ere baztertzailak diren proba guztiak gaitutuko ez balitu, deialdia huztat joko da.

Epaimahaiak ahalmena izango du, oinarri hauetan aurreikusita ez dagoen guztian, hautaketa-prozesua behar bezala antolatzeke eta garatzeko beharrezkoak diren erabakiak hartzeko, eta prozesuaren interpretazioari eta aplikazioari buruz sortzen diren auzi guztiak ebazteko, bai eta bere funtzioak betetzeko ere.

6.5. Deialdiak eta jakinarazpenak

39/2015 Legearen 45. artikuluan xedatutakoaren arabera, hautaketa-prozeduratik eratorritako administrazio-egintzak Badesa, SAUko web orrian (www.badesa.eus) argitaratuko dira, jakinarazpena ordeztuz eta ondorio berberak sortuz.

Horri dagokionez, proben deialdiak eta epaimahaiak egin beharreko gainerako jakinarazpen eta komunikazioak Erakundearen webgunean (www.badesa.eus) argitaratuko dira.

Era berean, oposizio-faseko ariketaren emaitzak eta lehiaketa-faseko merezimendu balorazioa, azken kalifikazioa eta hautaketa-prozesua gaitutu dutenen zerrenda argitaratuko dira.

Illo beretik, deialdiari buruzko informazio orokorra interesdunen eskura egongo da web-orri horretan.



7. HAUTAKETA-SISTEMA

Oposizioaren lehenengo ariketaren eguna, ordua eta lekua plaza-buruaren ebazpe-nean adieraziko dira, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzen duenean.

Ariketaren deialdia deialdi bakarrean egingo da. Epaimahaiak ariketa egiteko deialdian ezarritako leku, egun eta orduan agertzen ez diren izangaiak hautaketa-prozesutik kanpo geratuko dira behin betiko, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen mar-txoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21. artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe.

Epaimahai kalifikatzaileak aukera izango du, une oro, izangaiei beren burua identi-fikatzeko eskatzeko, eta horregatik izangaiek NAN eraman beharko dute oposizioaren ariketa guztietara, edo beste edozein agiri ofizial, baldin eta epaimahaiaren ustetan izan-gaiaren nortasuna egiaztatzeak nahikoa bada (pasaporte, gidabaimena).

Oposizio-Fasea

Ariketa teoriko-praktikoa. Derrigorrezkoa eta baztertzalea: 10 puntu

Ariketa teoriko-praktiko horretan II. eranskinean azaltzen diren gaiekin lotutako galderak eta/edo lanpostuaren eginkizunekin lotutakoak erantzun beharko dira. Epai-mahaiaren ardura izango da galderek test modukoak edo bestelakoak izan behar ote duten erabakitzea, eta baita puntuatzeko modua ere. Proba horretan 10 puntu emango dira gehienez.

Epaimahaiak, ariketak nork egin dituen jakin aurretik, proba gainditzeko beharrezkoa den gutxieneko puntuazioa ezarriko du.

Oposizio-faseko ariketaren zuzenketa amaitzean, epaimahaiak Badesa, SAUren webgunean (www.badesa.eus) argitaratuko ditu gainditutakoen zerrendak, dagozkien kalifikazioekin.

Hiru egun balioduneko epea ezarriko da, epaimahaiaren ebazpena argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita, egindako azterketak berraztertze eskatzeko edo azterke-ten kalifikazioei buruzko erreklamazioak aurkezteko.

Erreklamazioak epaimahaiburuari zuzendu beharko zaizkio eta Badesa, SAUko Erre-gistro Orokorrean aurkeztu beharko dira.

Epe hori amaituta eta, hala badagokio, aurkeztutako erreklamazioak ebatzita, epai-mahaiak argitara emango ditu oposizio faseko behin betiko emaitzak.

Idatzizko ariketak egitean, izangaiei anonimotasuna ahal den neurrian bermatzeko neurri egokiak hartuko ditu Epaimahaiak.

Lehiketa Fasea

Merezimenduak: 4,5 puntu guztira:

Oposizio-fasea gainditzen duten izangaiak lehiaketa-fasera igaroko dira, eta, fase horretan, Epaimahaiak honako merezimendu hauek balioetsiko ditu, betiere eskabidean jasota badaude. Inola ere ez dira baloratuko eskabidean/erantzukizunpeko adierazpe-nean alegatu ez diren merezimenduak.

Ofizioz, honako merezimendu hauek egiaztatu eta/edo espedienteari gehituko zaiz-kio, interesdunak berariaz kontrakoa adierazten ez badu:

- Hizkuntza-eskakizunik altuena (Euskara).
- Eskabidean Badesan/Debarrena Eskualdeko Mankomunitatean emandako zer-bitzuak eta izandako lan-esperientzia azaltzen badira, ez da beharrezkoa izango dokumentu bidez egiaztatzea, izangai bakoitzaren espedienteetan azaltzen diren datuen arabera balioetsiko direlako.

Kalifikazio-epaimahaiak hamar egun balioduneko epea emango du hautagaiek ins-kripzio-formularioan alegatu dituzten eta ofizioz egiaztatu ezin izan diren merezimen-duak egiaztatzeak.



Nolanahi ere, eskabideak aurkezteko azken eguna baino lehen lortutako merezimenduak baino ez dira baloratuko Gipuzkoa-Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarkian.

Lehiaketa-aldiko gehieneko puntuazioa 4,5 puntukoa izango da, baremo honen arabera:

Epaimahaiak oinarri hauetan ezarritako baremoen arabera baloratuko ditu merezimenduak, eta baremo horien arabera dagokion puntuazioa esleituko dio izangai bakoitzari.

— *Lan-esperientzia: gehieneko puntuazioa 3,00 puntu*

Administrazio Publikoko, enpresa publiko edo pribatuetaiko kategorian bereko edo antzeko lanpostuetan egiaztatutako esperientzia hartuko da kontuan, hau da, peoi balioaniztun, peoi edo kale-garbitzetaiko zerbitzuetako gidari gisa.

Lan egindako hilabete bakoitzeko 0,20 puntu emango dira.

Atal honetan gehieneko 3,00 puntu lortu ahal izango dira.

Merezimendu horiek egiaztatzeke, zerbitzuak eman diren administrazioak edo enpresa publikoak emandako ziurtagiriak aurkeztu beharko dira, Gizarte Segurantzak emandako lan-bizitzaren agiriarekin batera. Enpresa pribatuetaiko esperientzia izanez gero, eskatutako ziurtagiriaren ordean erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu ahal izango da. Kasu horretan, hautagaia hautatua izanez gero, adierazpen hori dagokion ziurtagiriarekin osatu beharko du. Ziurtagiri horietan, edo, hala badagokio, erantzukizunpeko adierazpenetan, bete diren eginkizun guztiak zehaztu beharko dira. Egindako eginkizunen edo zereginen deskribapenean lanpostuari dagokion eginkizunen % 51, gutxienez, sartzen ez bada, epaimahaiak erabakiko du bidezkoa den puntuaziorik ez ematea.

Lanbide-esperientziaren zenbaketan sartzen da izangaiek senitartekoak zaintzeko edo genero-indarkeriagatik eszedentzia-egoeran egon diren denbora, amatasuna eta aitatasuna babestea helburu duten lanaldi-murrizketei edo baimenei egotz dakiekeen denbora, bizitza pertsonalaren, familiakoaren eta lanekoaren kontziliazio erantzukidea erraztea, eta langile publikoek genero-indarkeriagatik baimenak erabili dituzten denbora.

Eskabidean Badesan/Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatean emandako zerbitzuak eta izandako lan-esperientzia azaltzen badira, ez da beharrezkoa izango dokumentu bidez egiaztatzea, izangai bakoitzaren espedienteetan azaltzen diren datuen arabera balioetsiko direlako.

Behar adina egiaztatuta ez dauden merezimenduak ez dira balioetsiko.

— *Fitosanitario txartela:*

Oinarritzko fitosanitario txartela edukitzea 0,75 puntu

— *Euskara-Maila:*

Gehieneko puntu 0,75.

Ziurtagiri ofizialen bidez egiaztatuko da.

1. hizkuntza-eskakizunaren parekoa: 0,75 puntu.

Lehiaketa-fasea amaitutakoan, epaimahaiak merezimenduen balorazioaren behin-behineko emaitzak argitaratuko ditu, eta hiru (3) egun balioduneko epea ezarriko du emaitzak berrikusteko eta erreklamazioak aurkezteko, Badesa, SAUren web-orrian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

8. HAUTAKETAREN EMAITZAK

Oposizio-proban lortutako puntuazioaren gehi alegatutako eta hautagaiek egiaztatutako merezimenduengatik lortutako puntuazioaren ondoriozko lehentasun-ordenaren arabera zerrenda bat egingo da.

Zerrendako lehen postuetan daudenak lanpostuak hartuko dituzte, lan-kontratu mugagabearen bidez.



Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen Testu Bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegingizako Dekretuaren 21. artikuluan xedatutakoaren arabera, trebakuntza-berdintasuna egonez gero, emakumeei emango zaie lehentasuna emakumeen ordezkaritza % 40tik beherakoa den Administrazioaren kidego, eskala eta kategorietan, salbu eta beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak dituenen, sexuagatiko diskriminaziorik eragin gabe, hala nola enplegua lortzeko zailtasunak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea.

Aurreko paragrafoan xedatutakoari kalterik egin gabe, berdinketak bere horretan jarraitzen badu, hurrenkera honako irizpide hauen arabera ezarriko da, hurrenez hurren:

- a) Oposizio-fasean puntuaziorik handiena lortzea.
- b) Puntuazio handiagoa lan-esperientziaren atalean.

Izangaien zerrenda bat egingo da, puntuazio handienetik txikienera. Zerrenda hori lanpostu horietako lan-kontratu mugagabeen kontratuetara aurkeztu ahal izango da, zerrendako lehentasun-hurrenkera errespetatuz, baldin eta bete gabe geratzen badira, arrazoia edozein dela ere.

Epaimahaiaren ustez, deialdira aurkeztutako pertsonen artean bakar batek ere ez baditu lanpostuek betetzeko gutxieneko eskakizunak betetzen, deialdia bete gabe utz dezake.

9. EPAIMAHAIAREN PROPOSAMENA

Behin prozesu osoa amaituta, epaimahaiak Badesa, SAUko organo eskudunari helaraziko dio proposamena, hala badagokio onar dezan.

10. IZENDAPENA

Eskumeneko organoak baimena emango du epaimahaiak proposatutako izangaiak lan-kontratu mugagabe bidez kontratatzeko.

Proposatutako izangaiak deialdi honetan eskatzen diren gaitasun-baldintzak eta betekizunak egiaztatzen dituzten agiriak aurkeztu beharko dituzte, zehazki, honako hauek:

- a) Badesa, SAUko lan-osasuneko unitateak eskatutako ziurtagiria, dagozkion egin-kizunak betetzeko lan-gaitasuna egiaztatzen dutena, oinarri hauen arabera. Horretarako, hautatutako pertsonen probak eta mediku-azterketa egingo zaizkie. Horiek egiteari uko eginez gero, prozesutik kanpo geratuko dira.
- b) Diziiplina-espediente bidez zerbitzutik bereizi ez izanaren adierazpena, edozein administrazio publikotatik, edo administrazio publikoaren zerbitzura dagoen pertsonalaren ezintasun- edo bateraezintasun-kausaren batean sartuta ez egotearena, edo, hala badagokio, bateragarritasun-eskabideren batean egotearena.

Agiriak aurkezteko epea hamar (10) egun baliodunekoa da, hautatuen zerrenda argitaratzen denetik zenbatzen hasita.

Izangaiek ez badute egiaztatzen ezarritako epean eskatutako eskakizunak betetzen dituztela, ezinbesteko arrazoiengatik izan ezean, pertsona horiek ezin izango dira kontratatu eta beraien jardun guztiak balio gabetu egingo dira. Kasu horretan, gainditu dutenen zerrendako ondorengo lanpostuan dauden pertsonen aldeko proposamena egingo du organo eskudunak, azken kalifikazioaren ordenaren arabera.

Probaldia

Kontratututako izangaiek hilabeteko iraupeneko probaldia gainditu beharko dute.

Gaueko hiri-hondakin zerbitzuaren arduradunak ebaluatuko du probaldia eta zerbitzuburuak berretsia.

Honako hauek balioetsiko dira:

- Zereginen eta betebeharren betetze-maila
- Erantzukizuna eta egokitzapena
- Ekimena, lan-kalitatea



Ebaluazioaren emaitza honela kalifikatuko da: gai edo ez gai.

Ebaluazio-txostena Badesa, SAUko Presidenteari helaraziko zaio, hark ebazpena eman dezan.

Probaldia ez gainditzeak, edota lanpostuaren betekizunetako bati uko egiteak edo ez betetzeak izangaiaren kontratua bertan behar uztea ekarriko du berekin, eta lanpostua esleituiko zaio hautaketa-prozesuan hurrena geratu den izangaiari.

11. DATUAK BABESTEARI BURUZKO INFORMAZIOA

- *Arduraduna*: Badesa, SAU. Egiturentarren, 2. behe, 20600 Eibar, Gipuzkoa. IFK: A-20361630. Telefonoa: 943 70 07 99.
- *Kontaktu*: Datuen Babesaren Ordezkararen kontaktua: dbo@debabarrena.eus
- *Helburuak*: Hautaketa-prozesuen ondorioz biltzen eta/edo sortzen diren datu pertsonalak Badesa, SAUk tratatzen ditu, tratamenduaren arduraduna denez, lanpostuak betetzeko eta aldi baterako lan poltsa osatzeko hautagaien lanbide gaitasuna ebaluatzeko helburuz.
- *Gordetzeko epea*: Datu pertsonalak hautaketa-prozesuaren indarraldian eta lan poltsan egon bitartean gordeko dira. Indarraldia bukatuta, blokeatu egingo dira eta datu horiek eskuratzeko aukera murriztu egingo da, oro har, kudeaketari eta, batez ere, datu pertsonalei lotutako erreklamazioak aurkezteko aldietan.
- *Legitimazioa*: Datuak tratatzeko legitimazioa edo legezko oinarria ahalmen publikoaren erabilera da, Datuak babesteko Europako Erregelamendu Orokorren 6.1.e) artikuluekin bat, eta, era berean, Erregelamendu bereko 6.1.c) artikulua, legezko betebeharrean oinarritzen dena. DBEOren 9.2.b) artikulua, arduradunak lan-zuzenbidearen eta gizarte-segurtasunaren eta babesaren esparruan dituen betebeharrak betetzeko eta eskubideak baliatzeko.
- *Hori guztia, jarraian azaltzen diren arauak betez.*
 - 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituena.
 - 16/1997 Legea, azaroaren 7koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legea aldatzen duena.
 - 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena.
- *Jatorria*: Interesdunak berak zuzenean emandako datuak.
- *Hartzaileak*: Datuak beste administrazio publiko batzuei utzi ahal izango zaizkie, une batean izan ditzaketen langile premiak betetze aldera.

Datu pertsonalen kudeaketak ez du datuen nazioarteko transferentziak egitea ekarriko.
- *Eskubideak*: Interesdunek beraien datuak atzitu ahal izango dituzte, eta datuak zuzentzeko edo transferitzeko eskatu; eta, hala badagokio, datuak ezabatzeko, datuei aurka egiteko edo tratamendua murrizteko. Horretarako, Arduradunaren helbidera edo Datuen Babesaren Ordezkararen posta elektronikora idatzizko jakinarazpen bat bidaliz.

Eskubide hauek errespetatu ez direla ulertzen baduzu, Datuen Babesteko Euskal Bulegoan erreklamatu dezakezu.
- *Inf. Gehigarria*: Informazio gehiago izateko, gure Datuen Babeserako politikan kontsultatu ahal dezakezu (<https://www.debabarrena.eus/eu/datuen-babesa>)

12. AURKARATZEAK

Interesdunek aurkaratu egin ahal izango dituzte deialdi hau, bere oinarriak, eta deialditik eta epaimahaiaren jardunetatik eratortzen diren administrazio-egintza guztiak, lan-arloko jurisdikzio eskudunaren aurrean, hargatik eragotzi gabe beren eskubideak hobeto defendatzeko egokitzen jotzen duten beste edozein ekintza edo errekurtso.



I. ERANSKINA

FUNTZIOAK

Funciones básicas

- Bide publikoa garbi edukitzeko zeregin zehatzak egitea.
- Garatutako lanari buruzko informazioa ematea.

Zeregin espezifikoak

1. Gutxienez bere lan-ibilbideari dagokion bide publikoa ekortzeko lanak egingo ditu zerbitzuaren berezko tresnak erabiliz, aire-erratzen erabilera barne.
2. Azoka txikiak egiten diren eremuak garbituko ditu (eskuz eta mekanikoki).
3. Paperontziak hustu eta bertako hondarrak bilduko ditu.
4. Gorozkiak bide publikotik kenduko ditu Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak /Badesak bere eskura jarriko dituen bitartekoekin.
5. Bide publikoan dauden edukiontzietako orgetako zabor-poltsak hustuko ditu, horretarako emango zaien txartela erabilita. Edukiontzia ez badabil, hierarkiaren arabera nagusiari emango dio gorabeheraren berri.
6. Paperontzi selektiboen bilketaren kasuan, bereiz jaso beharko du hondakina eta dagozkion edukiontzietan utzi, bereizita baita.
7. Bitarteko mekanikoekin kenduko ditu belarrak eta lirdinga bide publikotik, hala nola arraspekin edo bestelako bitartekoekin.
8. Eskuila ebakitzailaren erabilpena
9. Kale, espalo, eskailera, plaza, parke, errepide eta arekak (bide publikoa, azken batean) garbi edukitzeko ardura hartuko du.
10. Fatxadak garbituko ditu, bide publikotik kenduz bertan erakusgai jarritako komunikazio idatzi guztiak, baldin eta udal-ordenantzak betetzen ez badituzte, eta pertsonen osotasun fisikoa arriskuan jarri gabe.
11. Zuhaitz-txorkoak, eskola-parkeak eta lorategiz hornitutako erdialdeko eremuak garbitzea.
12. Eskatzen zaionean mahukaz egin beharrekoak egitea.
13. Esleitutako ibilgailua gidatzea (adibidez desugertzeko makina, kale garbiketako makina, espaloak garbitzeko makina, presiogarbigailua) ezarritako bidetik gidatzea, lurrean dauden hondakinak bilduz, makina iritsi daitekeen bide publikoko eremuak garbi edukiz: kaleak, espaloak, plazak, parkeak, galtzadak, arekak eta abar.
14. Kontserbazio- eta garbitasun-egoera onean mantentzea erabiltzen duen garbiketamakina, makinaren egoeraren erantzukizuna bere gain hartuta, eta egunero berrikusita eta garbiketa bat eginda (baita kabinaren barne-garbiketa ere), eta makina koipeztatuta lanaldi bakoitza amaitzean, baita desinfekzioa ere, hala dagokionean.
15. Makina erabiltzeko orduak kontrolatzeaz arduratzen da, fabrikatzaileak adierazitakoaren arabera mantentze-lanen berri emateko eta horiek planifikatzen laguntzeko.
16. Makinaren mantentze-lan txikia egitea egunero: eskuilak eta aire-iragazkiak aldatzea, ur-mailak kontrolatzea, olio, hidraulikoa eta abar, makina behar bezala ibiliko dela bermatzeko. Erregai-depositua betetzea.
17. Ezbeharrak, kolpeak eta abar gertatuz gero, istripuaren parte osoa egitea, kroka, gorabeheraren deskribapen zehatza, garbi azalduz gertakaria, gorabeheraren edo istripuaren arrazoiak, ondorioak, istripua edo gorabehera konpontzerakoan jarraitutako prozedura eta abar.
18. Garbitzeko dauzkan tresna eta makinak zaindu eta haien ardura hartzea.
19. Bere nagusiei jarduera ongi garatzeko izaten edo aurreikusten diren zailtasun eta gorabeheren berri ematea.



20. Gainera, ekoizpen-parte bat egingo du, kale-garbiketako zerbitzua emateari dagokionez zein Debarrena Eskualdeko Mankomunitateak/Badesak Hiri Hondakin Solidoen zerbitzua emateko erabiltzen dituen hiri-altzarien egoerari dagokionez nagusiak eskatzen dion informazioa jasota.

21. Era berean, agintzen zaizkion zereginak betetzea, lanpostuan jarduteko eskatzen den prestakuntzarekin bat datozenak.

22. Fitosanitarioen erabilera

23. Baliabide mekaniko/kimikoekin hainbat proba egiten laguntzea, kale-garbiketaren arloan prestatutako zerbitzuaren kalitatea hobetzeko.

24. Oro har, bide publikoa garbi mantentzeko helburua duten funtzio guztiak betetzea, baldin eta lanpostu horretan betetzekoak badira eta antzeko zereginak eskatzen badituzte.

25. Ibilgailuen maneirako prestakuntza-ikastaroetara joatea, nagusiek gainbegiratu eta baloratuta, haien erabilera hobetzeko.

**II. ERANSKINA****GAI-ZERRENDIA OROKORRA**

1. Aplikazio hitzarmena – Udalhitz.
2. 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Eusko Legebiltzarrarena, Emakumeen eta Gizoneen berdintasunerakoa eta Emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabeko bizitza.
 - Atariko titulua. Xedea, aplikazio eremua eta emakumeen eta gizoneen berdintasunaren arloan herri aginteen jarduna zuzendu behar duten printzipio orokorrak.
3. Gardentasuna. 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa.
 - Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea (12.etik 22.era).
4. 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko.
 - III. Titulua. Pertsonen eskubideak.

GAI-ZERRENDIA ESPEZIFIKOA

1. Badesa / Debarrena Eskualdeko Mankomunitatea.
2. Udal-ordenantzak: Kale garbiketa Eibarko udal ordenantza.
3. Debarrena Eskualdeko Mankomunitateak / Badesak emandako zerbitzuak.
4. Zer da kale garbi bat. Definizioa. Kale-garbiketak dituen zailtasunak eta horiek ekiditeko sistemak edo baliabideak.
5. Garbitu beharreko hiriguneak. Maiztasuna. Kaleen sailkapena.
6. Kale-garbiketaren inguruko kontzeptu orokorrak, prozedurak, lan-tresnak, materialak, frakzioak, birziklapena eta kontzeptu orokorrak.
7. Fitosanitarioen aplikazioa.
8. Garbitzeko makinak, tresnak eta erremintak. Erabilpena eta mantenimendua
9. Zirkulazio-kode.
10. Lan arriskuen prebentzioa. Eskubideak eta betebeharrak.
11. Lan arriskuen prebentzioa. kontsulta eta langileen parte-hartzea.